






DONEZTEBEKO FERIAK

2025

ttipi-ttapa | 889 zk. | 2025-10-30



DONEZTEBEKO FERIAK 2025



UTZITAKOA

Udazken betean, azaroaren 14an, ortziralean, feria giroan murgilduko da Doneztebe. Herritarrentzat zein kanpokoentzat, agendan ongi gordetako eguna izaten da. Elizondoko feriei lekukoa hartuta, egingen dituzte Doneztebekoak, eta Lesakakoen txanda izanen da gero.

Tradizioa sobera aldatu gabe, ohiko egitaraua izanen da aurtengo Doneztebeko feria egunean ere. Goizean, 10:00ak aldean hasi eta eguerdira arte, 14:00ak arte guti goiti-beheiti, Malerrekako abelbururik ederrenak ikusteko aukera izanen da Mer-

katu plaza inguruan: behorak, behiak, ardiak... Erakusketa bakarrik izanen da, ez baita bururik onenaren lehiazirik izanen. Tenore berean, Bordatxo inguruko aparkalekura hurbiltzen denak lanerako tresnak eta makinak ikusteko aukera izanen du.

Ikusteko bakarrik ez, erosteko aukera ere izanen da Donezteben. Goizean hasi eta ilunabarrera arte, salgaiak paratuko dituzte alde zaharrean herriko merkatariek, eskualdeko ekoizleek zein kanpotik joandako saltzaileek. Jatekoak erosteko aukera izanen da: gozokiak, eztia, ogia,

TALLERES ELIZGOYEN

Autoen eta lur orotako ibilgailuen konponketak

Ongi pasa
feriak!

Mekanika azkarra
Multimarka diagnosis
Injekzioa
Gasolioa
Direkzioa
Balaztak eta ABS
Elektronika
Aire girotua
IAT aurreko azterketa
Esekidura
Txapa eta pintura

MULTIMARKA TAILERRA

Leitzako bidea, 78 – Doneztebe | 948450158
elizgoyen@telefonica.net

IREKIERA BERRIA!



Neska/Mutil ile-mozketak
Koloreak/Metxak
Tratamenduak
Aholku pertsonalizatuak

Rosa Seminario, 17 | DONEZTEBE

948 083 684

MENDAUR MOTOR

T. Multimarca Especializado 4x4 - Opel - Suzuki
COMPRVENTA - CHAPA - MECANICA - ELECTRICIDAD

Leitzako bidea • DONEZTEBE | Tfnoa: 948 450 333

ongi pasa
feriak!

FERIAK
LARUNBAT GAUETAN
SEKULAKO GIROA!!!
ONGI PASA FERIAK!!!

Merkatarien karrika, 28
 31740 DONEZTEBE

OSTATUA

Bixen
 Bixen estatu

ONGI PASA FERIAK

PINTXOAK | PLATER KONBINATUAK | PLATER TIPIKOAK
ETXEKO POSTREAK | ZIZKA-MIZKAK | HANBURGESAK
ENTSALADAK | BOKATAK

Ameztiak karrika | **DONEZTEBE** T. **848 680 806**

ttipi-ttapa erran.

2025a bukatu arte
KIDETZA DOAN!

*2026ko kuota ordainduta

Informazio gehiago:



UTZITAKOIA

taloa, gazta... Jatekoek aparte, arropa, oinetakoak, galtzerdiak, aterkiak eta bertzelakoak ere izanen dira salgai. Bertze urte batez, Mendaurren institutuko ikasleek ere beren postua paratuko dute.

Herri kirolak arratsaldean

Goizean ganadua eta salgaiak ikusi ondotik, arratsaldean herri kirolarien saioa izanen da. 18:00etan izanen da Ezkurra pilotalekuan eta kirolariak bi modalitatetan ariko dira: aizkoran eta arpean.

Alde batetik, 2025eko Euskadiko Emakumezkoen Trontza Txapelketa jokatu dute. Bortz bikote ariko dira nor baino nor, baina ez da eskualdeko parte hartzailearik izanen. Honakoak izanen dira txapelketan parte hartuko duten kirolariak: Uxue Ansorregi eta Aurkene Aroka; Irune Biurrun eta June Etxeberria; Sara Jimenez de Aberasturi eta Maite Felipe Suso, Ruth Lizana eta Garbiñe Lopez de Uralde eta Ainhoa Iraizoz eta Maria Iraizoz. Bikote bakoitzak

hamabortz ebaketa egin beharko ditu eta horretarako gisa guztietako trontzak erabiltzen ahalko dituzte.

Aizkolariak txapelaren bila

Bigarren hitzordua Nafarroako Lehenengo Mailako Aizkora Txapelketaren finala izanen da. Lekunberrin jokatu zuten finalerako kanporaketa urriaren 11n eta bortz aizkolarik lortu dute finalerako txartela: Iker Vicentek, Ibai Soroak, Oier Kañamaresek, Txomin Amondarainek eta Julen Kañamaresek. Honetan ere ez da eskualdeko parte hartzailearik izanen. Txapela lortzeko lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta bi oinbiko moztu beharko dituzte aizkolariak.

BERTAKO ZEIN KANPOKO EKOIZLEEN PRODUKTUAK EROSTEN AHAL DIRA

Espezialistak eremu guztietan *profesionaletik profesionalera!* **STIHL®**

AGRICOLA BIDASOA

Lorezaintza eta nekazaritza makinaren salmenta eta konponketa
 Auzolan, 16 – Irun – 943 627 331 – agribidasoa@gmail.com

Lehia estua izanen da bortz aizko-larien artean. Kanporaketan Iker Vicente otsagabiarra nagusitu zen, eta bera da txapela lortzeko faborito nagusia. Iaz hamargarrenez irabazi zuen txapelketa Vicentek, Mikel Mingegiaren marka berdinduta. Aurten goa irabaziko balu, beraz, inoiz Nafarroako txapelik gehien irabazi dituen aizkolaria bihurtuko litzateke Vicen-te.

Herriko ostatua irekia

Aziendak eta salgaiak bai, baina bes-ta ere protagonista izanen da Donezteben. Goizean goiz etxetik at-eta eta hurrengo goizaldera arte gel-ditzeko ohitura dute aunitzek. Bes-tarako gogoz daudenek, herriko ostatura joateko aukera izanen dute. Izan ere, bertze urte batez, Lapaitza Bertizaranako eta Malerrekako Gaz-te asanbladak Herrigunean ostatua irekiko du. Egun osorako egitarau zabala prestatu dute Lapaitzako ki-deek. Egitarauari dagokionez, iazko egitarauaren antzera, goizean azoka izanen dute, eta kafea eta pintxoak dastatzeko aukera izanen da. Eguer-



UTZITAKOA

dian bermut musikatua izanen da eta 14:30ean bazkari autogestionatua egingen dute.

Bazkalondoan mahai inguruan elkartu ondotik, 19:00etan hasita, kontzertuak izanen dira. 3. Mundu Gerra, Matxarda eta Adur taldeak ariko dira eta besta borobiltzeko, DJ Muffinen txanda izanen da. Goizal-dera arte luzatuko da besta.

Zer egin, zer ikusi eta zer jan izanen da, beraz, ferietan Donezteben.



ONDIKOL



ONGI PASA DONEZTEBEKO FERIETAN!!

AMA KONTXA

GASOLINDEGIA

ONGI PASA FERIAK!

24 ORDUKO ZERBITZUA

BETE DEPOSITUA MAKINA AUTOMATIKOAN

TXARTELAREKIN EDO ESKUDIRUTAN

BEZEROARENTZAKO ARRETA-ZERBITZUA ITXIA DAGOENEAN

SUPERMERCATUKO PREZIOAK



Ctra. N-121-A - Km 48,8 • DONEZTEBE
T. 948 450 272 · 948 450 787

EDERKI tailerra



CITRÖEN
ZERBITZU OFIZIALA

'Latigillo' hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

ongi pasa feriak!

Leitzako bidea 57 • DONEZTEBE • 948 450 525





Arozena
ostatu · jatetxea

Ongi pasa feriak!
T. 948 450 443
Leitzako errep., 84
DONEZTEBE

Mendiburu
aziendak · tratantea

Ongi pasa feriak!



608 676 221
948 450 084
DONEZTEBE

Maite
moda

Emakume eta gizonentzako
arropa eta osagarriak

*Feria egunean
eskaintza bereziak!*



📍 Ameztia Zeharkarrika, 5
DONEZTEBE
📞 Deiak eta WhatsApp:
948 450 727
📱 Jarrai
gaitazu
Instagramen!



Zurea
ETXEBIZITZAK

📞 621 244 256
✉ zureainmuebles@gmail.com

*Zure borda
saldako daga!*

ZERBITZU INMOBILIARIOAK

«Ikasbidaia joateko dirua biltzeko postua paratuko dugu ferietan»

MENDAUR INSTITUTUKO LAUGARREN MAILAKO IKASLEAK



UTZITAKOA

Aunitz izaten dira feria egunean postua paratzen duten saltzaileak. Inguruko herrietakoak izaten dira batzuk, kanpotik etorritakoak bertzeak. Horien artean, azken urteetan bezala aurten ere, Doneztebeko Mendaurren institutuko DBHko laugarren mailako ikasleek beren postua paratuko dute alde zaharrean. Argazkian ageri den ikasle taldea dagoeneko buru belarri murgildua dago feria eguneko antolaketa lanetan. Besta eguna izanen dute eta liburuak etxean utzita, bertzelako lanetan aritzeko tartea hartu beharko dute azaroaren 14an.

Ikasturte akabailan, oporrak hasi aitzinetik, ikasbidaia joanen dira Mendaurren institutuko ikasleak. Bidaia ordaintzeko, ordean, lana egiten ari dira aitzinetik: «Dirua aurrezten ari gara, eta ferietan aunitz saltzen denez, postua jartzea erabaki dugu», kontatu diote ikasleek TTPI-TTAPARI. Eskolatik kanpo ikasleek beren kabuz antolatutako ekimena da, eta beraiek antolatu dute dena, bai postua, eta baita bertan salduko dituzten produktu denak ere.

Denetarik eskaintza

Dirua biltzea da helburua, eta horretarako eskaintza zabala izanen dute ferietako postuan: «Egunean bertan guk egindako pintxoak, biz-

kotxoak... izanen ditugu eta tonbola ere paratuko dugu». Jatekoa bakarrik ez, bertzelako produktuak ere izanen dituzte eskuragarri: «Zozketarako txartelak salduko ditugu eta jertseak eta tote bag edo telazko poltsak ere prestatu ditugu saltzeko». Azken horiekin berezitasun bat ere izanen da: «Feria egunean postuan izanen ditugu ikusteko eta probatzeko, baina egunean bertan ez dira salgai egonen. Eskaerak apuntatuko ditugu». Eskaerak bildu ondotik, erosi eta aitzinerago banatuko dituzte erosten artean.

Talde lana oinarri

Talde lanean ari dira postua antolatzen, eta egunean berean ere, taldean ariko dira dena prest eta txukun izateko: «Laugarren mailako ikasle denek hartuko dugu parte postuan, eta ordu bateko txandetan banatu gara sei edo zazpiko taldeetan».

«ORDUBETEKO TXANDAK EGINEN DITUGU FERIA EGUNEAN»



ONDIKOL

Ferietatik kanpo ere bai

Ikasbidaiaira joateko diru bilketa ez dute feria egunera mugatu, ber-tze hainbat egunetan ere ariko baitira dirua biltzeko ekintzak egi-ten. Alde batetik, feria egunetik aparte salduko dituzte poltsak eta jertseak, eta bertzetik, «eskolako egun berezietan janari postua pa-ratuko dugu patioan». Horrekin aski ez, eta «Doneztebetik Nafarroa Oinezera eta Herri Urratsera joa-teko autobusak antolatu ditugu».

Ferietako postuan, eskolan para-tutakoan eta ikasbidaiarako pro-dukтуak salduz lortutako diru dena bideratuko dute ikasturte bukaer-ako bidaia ordaintzeko eta norbe-rak sakelatik diru guttiago ordain-tzeko.

Taldean lana eginez, auzolana oinarri, ikasketa ederra izanen da postua paratzea. Orain, feria egu-nerako hainbertze mimos eta gogoz prestatutako dena saltzea bakarrik falta da.

Bilan NEKAZAL
TRESNAK

☎ 948 92 40 17 ✉ info@bilanagricola.com
☎ 680 218 811 📍 Kale nagusia 19, 31747 Saldias

CTV ONGI PASA FERIAK

Rosa Seminario, 15 DONEZTEBE
T. 948 450 591 M. 659 884 374
ctveterinario@telefonica.net
www.veterinariaostiz.com

EROSKI city

ongi pasa feriak!!

T. 948 456 152
Zazpigerutze, 8 • DONEZTEBE

CS SALLIAS

HARATEGIA

“Elikagai naturalekin
etxean hazitako
aretxeen haragia.
Etxeko txistorra”

Karrika Nagusia, 19 • 948 450 191 • DONEZTEBE



Feria zoriontsuak opa dizkizuegu!

**IRURITA
RUBIO**
HORTZ KLINIKA

Odontopediatria | Irribarrearen diseinu digitala | Hortzetako estetika
Hortz-zuritze | Ortodontzia konbentzionala | Implanteak
Endodontzia | Ortodontzia ikusezina | Periodontzia | Kirurgia
+34 948 450 267 | +34 618 480 553 | clinicadentaliruritarubio.es



JOSÉ LUIS SAN MIGUEL

MERKATARIEN ZEHARKARRIKA, 11
31740 DONEZTEBE

948 450 711



KULTURKARI

Disenatu grafikoa | Publizitatea

www.kulturkari.com

Tel. 948 63 54 58

Drone zerbitzuak

Kalitatezko
irudiak behar
duzunerako



«Eskertzekoa da ferietan bertako ekoizleek lekua izatea»

HAIZEA BELARRA ENETERREAGA ERLANKI



TTIPI-TTAPA

Erleak ditu lanbide Haizea Belarra Eneterreagak. Erlanki izenpean aritzen da lanean eta erleek egindako hainbat produktu bildu, ontziratu eta saltzen ditu: eztia, propoleoa, polen hautsa. ... Beran bizi den arren, izatez doneztebarra da eta herrian izanen da bere produktuak saltzen ferietan.

2015etik ari da erleen bueltan lanean Belarra. «Hasieran erle gutti batzuekin hasi ginen eta poliki-poliki gus-tua hartzen joan eta geroz eta gehi-ago handitu da». Gaur egun bizimodua ateratzen du erlezaintzatik: «Donos-tian aritzen nintzen lanean sukaldar-itza klaseak ematen, baina, lehen haurra izatean hura utzi eta Beran hasi nintzen. Bigarren haurra izatean, berriz, ordutegiekin ez nintzen aile-

gutzen, eta orduan erabaki genuen erle gehiago jartzea. Geroztik, aunitz aldatu da bere bizitza: «Lehen aste-lehenetik ortziratera aritzen nintzen lanean eta orain ordutegirik gabe aritzen naiz». Erleekin aritzeko apus-tua egin zuten, eta «gaur egun, orain-dik honekin bakarrik bizitza duina izatea urruti dago. Bizitzen ahal gara, baina lan aunitz eginda», nabarmen-du du. «Oraindik tamaina hartzen ari gara, egunero ikasiz eta hobetuz. Lan handia da, baina naturarekin bat egiten dugu».

Erleak hainbat lekutan

Profesionalizazioak erle gehiago izatera eraman ditu, eta gaur egun bi eremu geografikotan izaten dituz-te erleak: Nafarroa iparraldean eta

Sampi Aragón S.L.



T. 948 450 354 | DONEZTEBE • sampiaragon@sampiaragon.com • www.arincar.com

Nafarroa hegoaldean. Urtean bitan biltzen dute ezti, udaberri hondarrean eta uda hondarrean eta bi kopapen geografiko izanda, lau ezti mota diferente izaten dituzte.

Ezti bakoitza, beraz, «diferentea» da: «Bortzirietako eta Malerrekako udaberriko ezti akaziarena eta fruta arbolena izaten da eta Tafallakoa erromeroarena, xarbotarena eta eskobizoarena». Uda akabailan biltzen dute Nafarroako Iparraldeko ezti, eta udazkenean Nafarroa Hegoaldekoa, basokoa deitzen dutena: «Hemen ingurukoa sasiarena, gaztainondoarena eta ainarrarena izaten da eta Nafarroa Hegoaldekoa, Orbaibar aldeko mendietan egiten dena, artearena da. Baina diferentea da, ez baita lorearen nektarretik egiten».

Ezti bakarrik ez, lore hautsa edo polena ere egiten dute eta baita kandela batzuk ere argizariarekin. «Jelea egin nahi dugu, baina, oraingoz behintzat, *jaleo* handi xamarra da», kontatu du irriz. Eguneroko lana izaten da erlezainarena, baina udaberrian eta udan izaten dute lane-

rako sasoirik indartsuena, nahiz eta horrek beti ez duen egutegiarekin bat egiten: «Jaz, adibidez, otsailera-ko loreak loratu ziren, erregina hasi zen arroltzeak jartzen, gero pixka bat gelditu zen... Egia erran nahiko zaila da data zehatzak ematea». Udazkenean eta neguan, berriz, «erritmo lasaiagoan» hurrengo kanpaina prestatzeko lanak eta mantentze lanak egiten dituzte.

Erleekiko interesa gizartean

Bisitak ere egiten dituzte. Orain arte, Lurretik Ikasiz proiektuaren barrenean, haurrak izaten dituzte bisitan, baina heldu den urtetik aitzinera bisita horiek zabaltzeko asmotan dira. «Haurrak talde handian etortzen dira, eta ezin izaten gara erlategian sartu». Jendeak interesa baduela

**«FERIAK SALMENTA
PUNTU INPORTANTEA
IZATEN DIRA
GURETZAT»**

Ainhoa Altzuguren Mitxelena

ongi pasa
feriak!

Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Arazo administratiboak
Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deitu hitzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89
ainhoaaltzuguren@gmail.com

Belarra jatetxea ONGI PASA FERIAK!

Amezti zaharrikara, 3 · 31740 DONEZTEBE
T. 948 450 306 · www.restaurantebelarra.com

cafeteria *Sorgiña* kafetegia

PINTXOAK ETA ETXETIKO GOZOAK

Leitzako bidea, 6 | DONEZTEBE ONGI PASA FERIAK! 948 061 191

ONGI PASA FERIAK!

aurreztu ur ihesak

uraurreztu.eus | 608 947 506

BIDASOA
GURPILAK - GASOLINDEGIAK
1999. URTETIK

**GASOLIOA
ETXERA**
eramaten dugu

**PARTIKULAR ETA GARRAIOLARIENTZAT
ZERBITZU ANITZAK**

Ibilgailu guztietarako gurpil eskaintza bereziak



24h-ko asistentziak errepideetan

IAT aurreko zerbitzua dohainik

Gasolindegia 24h irekita



609 446 693 - 679 204 872

bidasoa@neumaticosbidasoa.es

www.neumaticosbidasoa.es

Eska ezazu BIDASOA txartela erregaian deskontuak izateko



Alkaiaga Industrialdea
Ziobi Kalea 6
31770 Lesaka (Nafarroa)
948 625 663 - 636 293 125

**Ongi pasa
feriak!**



Noain-Eskiroz Industrialdea
Y Kalea 10
31110 Noain (Nafarroa)
948 312 239 - 679 204 872

Club AVIA

DONEZTEBEKO AVIA GASOLINDEGIA

CLUB AVIA txartelarekin
%2ko deskontua erregaian
eta %5eko deskontua
dendako produktuetan

Leitza bidea, 49 · T. 948 451 679 · www.doneztebe.net

Rosa Seminario, 13 | DONEZTEBE
660 05 54 94

Garmendi TX
powered by PinkmanBikes

**KONPONKETA INTEGRALA,
SALMENTA ETA ALOKAIRUA**
www.garmenditx.com

SCOTT
FANTIC **LAPIERRE** **GHOST**
COMMENCAL **MARIN** **KTM**

ONGI PASA FERIAK!

ORAIN erran.eus
KLIK BAKARREAN
Zer eskaintzen du Erran aplikazioak?

ALBISTEAK
0km GIDA
AGENDA
KIDEN TXOKOA

DESKARGATU

Google Play App Store



TTIPI-TTAPA

ikusita, «asmoa dugu buzo batzuk erosi, eta ekstrakzio gela egokitu eta bisitak etxaldean hartzeko». Neguan prestaketa horiek eginda, udaberri aldera hasi nahi dute.

Egindakoa saltzea izaten da eta bertze ekoizle aunitzek bezala, Erlankik ere salmenta guneetan izaten ditu bere produktuak, belar dendetan eta kontsumo elkarteetan batez ere. Salmenta zuzena ere egiten du, eta, noski, feriak eta azokak izaten dira saltzeko aukera zuzenenak: «Gure inguruko merkatuetan hagitz ongi saltzen dugu». Horietan hurrengo Doneztebeko ferietakoa izanen dute.

Bertako produktuak ferietan

Doneztebarra izaki, ttikitatik ezagutzen ditu feriak Belarrak. Bizitzeko modua da aldatu zaiona: lehen feriara ikusle gisara joaten zen, eta orain postuarekin saltzaile izaten da. «Oroitzen naiz ttikitari atxikirekin joaten nintzela azienda ikustera, eta traktoreak ikustera. Izugarri gusatzat zitzaizkidan traktoreak». Gaur egun, berriz, ikustera baino, saltzera joaten da. «Doneztebeko feriak

beti lotu izan ditugu pijamak, maindireak, aterkiak... eta horrelakoak erostearekin. Lehen kanpoko saltzaileak bakarrik izaten ziren, eta orain eskertzekoa da ferietan bertako ekoizleei ere lekua ematea». Urteen poderioz ere hori da aldatu dena bere hitzetan, «gaur egun bertako produktuak ere badutela bere lekua».

Salmenta puntu inportantea

Feriak, gainera, produktuak saltzeko salmenta puntu inportantea izaten dira Erlankirentzat. «Oraindik jendeak ezta eta antzeko produktuak katarroekin eta neguarekin lotzen ditu, eta hemengo feriak udazkenean izaten direnez, aunitz saltzen dugu», esplikatu du.

Doneztebeko feriez aparte, Berako Lurraren Egunean ere paratu zuten postua. «Hemen inguruan izaten diren azoka gehienetara joaten gara, tartean hilabetero Lesakan egiten den lehen sektoreko azokan postua paratzen dugu».

Doneztebeko ferietara hurbiltzen denak, beraz, bertan izanen du Erlankiren postua aukeran.

Ongi pasa feriak!

MERKATUKO

Doneztebe/Ferietakoa
DS
Udala
Zerbitzu Berrak